BIDESALMENTAKO UDAL ORDENANTZA

## HITZAURREA

Kalean dendatik edo merkataldegitik kanpoan egindako salmentak boga handia euki du betidanik euskal herrietan eta bai herritarren kulturan ere; gaur egun, zergatik edo hargatik hainbateko neurriraino heldu da bidesalmenta, non lehenagoko modu zaharrei aurrea hartu dien, establimendutan egindako merkataritzaren lagungarri eta osagarri izateari utzita.

Salmenta aldakorrak, edo beste izenez, bidesalmentak iritsi duen munta dela eta, neurri batzuk hartu beharra dago alde batetik aseguratzeko jarduera hauek konkurrentzia libreari eta leialari eutsita egin daitezen, eta beste aldetik, kontsumitzaileen eskubideak on eukitzeko eta errespetatzeko, baita ere beraien osasuna eta segurtasuna babestea bahi bada eta eskainitako ondasunen eta zerbitzuen kalitatea bermatzea.

Asmo honetara ekinez bada, prestatu egin da udal ordenantza hau bidesalmentan jarduteko prozedura eta kondizioak erregelatu beharrean, indarrean dauden legeek hala aginduta.

## Atariko Titulua: Aplikazioko Eremua

*Artikulua 1.*

Udal ordenantza honek bidesalmentan aritzea erregelatzea dauka Getxoko Udalbarrutian.

*Artikulua 2. Bidesalmenta zer den.*

Bidesalmenta deritza pertsonaren batek edo elkarteren batek egindakoari, merkataritzako jardueran ohi bezala edo inoiz edo behin aritzen dela establimendu jakinetik kanpoan, bai bideko saltokitan edo instalazio aldagarritan eta bai ibilgailutan. Bidesalmentan jardun ahal izatekotzat udal baimena premiakoa da, inori aldatu ezindakoa dela eta urtebete gehiena dirauela.

# ORDENANZA DE VENTA AMBULANTE

## PREÁMBULO

La venta fuera de establecimiento comercial, constituye una modalidad de venta de gran arraigo en la cultura popular de los municipios vascos, que ha adquirido en la actualidad, por circunstancias de diversa índole, una apreciable dimensión, superando su primitiva concepción como fórmula subsidiara y complementaria de la distribución comercial sedentaria.

La creciente importancia de la venta no sedentaria, conocida como venta ambulante, exige la adopción de medidas tendentes a garantizar de una parte, la realización de estas actividades en el marco de la libre y leal competencia, y de otra, el respeto y garantía de los legítimos derechos de los consumidores, así como la protección de la salud y seguridad de los mismos, asegurando la calidad de los bienes y servicios ofertados.

Con este propósito se ha procedido a la elaboración de la presente Ordenanza que regula el procedimiento y condiciones para el ejercicio de la venta ambulante. Todo ello en cumplimiento de la normativa vigente.

## Título Preliminar: Ámbito de Aplicación.

*Artículo 1.*

La presente Ordenanza tiene por objeto regular el ejercicio de la Venta Ambulante en el Municipio de Getxo.

*Artículo 2. Venta Ambulante. Concepto.*

Son ventas ambulantes las realizadas por personas naturales o jurídicas que ejerzan esta actividad bien de forma habitual u ocasional fuera de un establecimiento comercial, en puestos o instalaciones desmontables, así como en vehículos. El ejercicio de la venta ambulante requerirá autorización municipal, que tendrá carácter intransferible y una vigencia máxima anual.

*Artikulua 3 Bidesalmentaren motak.*

Bidesalmentaren motak, haiek guztiak udal ordenantza honen azpiko, hurrengoak dira:

a) Aldian aldian egindako merkatuak, nunbait leku jakinen batean paratutakoak; indarrean dauden arauek agindu bezala, astean egun bitan baino ezin egingo dira gehienez.

b) Noizbehinkako merkatuak; azokak, feriak, jaiak, ospakizunak, herrikoak edo eskulangintzakoak, direla eta kokatuak.

c) Kamioi-dendatan egindako salmenta, edo bide publikoan paratutako saltokietan, kasu eta kondizio berariazkoetan baimenduta.

*Artikulua 4 Behin-banango merkatuak, leku jakinetan paratutakoak.*

1. Merkatu mota hau da harako bidesalmentan egiten den postuak edo saltokiak biltzen dituena, aldizkako epe finkotan eta bide publikoko leku jakinetan.

2. Getxoko Udalbarrutian halako bidesalmentarik ez denez gero, ez da baimenik emango honelako merkatutarako, Udal Biltzarreak aurkako erabakirik hartuko ez balu. Udal Biltzarreak hala erabakita, udal ordenantza hau aldaraziko luke bidesalmentaren mota berri hau, harrezkero baimendutakoa, erregelatu beharrean.

*Artikulua 5. Noizbehinkako merkatuak.*

1. Hauexek dira inoiz edo behin egin ohi direnak, herri-jaiak edo ospakizunak direla eta, direla bertakoak edo estatukoak edo komunitate autonomokoak; udako denboran ezarritakoak eta kirolako gertakariak edo kulturakoak edo jostagarrizkoak parada dituztenak.

2. Bidesalmentaren mota honetan ere sartuak daude eskulangintzako azokak, zein baitira berariazko jardueraren bat edo batzuk, udal baimen

*Artículo 3. Tipos de venta ambulante.*

Constituyen modalidades de venta ambulante sujetas al ámbito de aplicación de la presente Ordenanza las siguientes:

a) Mercados que tienen lugar periódicamente, ubicados en lugares o espacios determinados, que según la normativa vigente sólo podrán celebrarse un máximo de dos días a la semana.

b) Mercados ocasionales instalados con motivo de ferias, fiestas, acontecimientos populares o artesanales.

c) Venta realizada en camiones-tienda o puestos instalados en la vía pública que se autorizan en circunstancias y condiciones precisas.

*Artículo 4. Mercados periódicos ubicados en lugares determinados.*

1. Constituye este tipo de mercado aquella concentración de puestos donde se ejerce la venta ambulante, de periodicidad fija y en espacios de la vía pública determinados.

2. No existiendo en el Municipio de Getxo este tipo de venta ambulante no se autorizarán mercados de estas características, salvo acuerdo plenario en contra. Este acuerdo plenario conllevará la modificación de la presente Ordenanza, a fin de regular este nuevo tipo de venta ambulante autorizada en Getxo.

*Artículo 5. Mercados ocasionales.*

1. Son aquellos que se celebran de manera no periódica en razón de fiestas o acontecimientos populares, de carácter local u otros eventos festivos estatales o autonómicos, los establecidos en período estival o con ocasión de eventos deportivos, culturales o lúdicos.

2. Se incluyen en esta modalidad los mercados artesanales, que son aquellos mercados artesanales creados al amparo de una actividad o actividades

bana duten lagun guztien amankomunekoak, oin hartuta egindako merkatuak. Apartekoak ohi dira eta haien paramena, aldizkako epea eta salmentako postuen kontua aurretik zehaztuko dira Alkatetzak erabakita.

Baimenduta dago hoietan saltzea eskulangintzako produktuak, bai saltzaileak berak eta bai nekazaleak landutakoak, esateko moduan, larruzkoak, zeramikazkoak, pinturak, eskulturak, apaingarrizkoak, eta beste; erabat debekatua dago, ordea, jatekoak saltzea.

*Artikulua 6. Kamioi-dendatako salmenta.*

1. Hauxe dago salmentan dihardduen lagunak ibilgailuren bat, furgoneta edo kamioia, hartarako usatuta egitean; ibilgailua behar diren kondizioetan paratuta egon behar da, baimendutako produktuen garraio eta salmentako arauekin bat etorrita.

Jarduera hau aldian-aldiangoa izan ahal da edo inoizkakoa, udal baimenak esandako lekuan zertuta.

2. Jatekoak saltzekotan jarrarazi beharko da deskripzioa eginda ibilgailuak zer nolako prestaera eta dotazioak dauzkan, erregelamendu teknikoen eta sanitarioen alderako.

3. Baimena eraukitzeko galdatutako betebeharrekin batean (art. 14), interesatuek eskaerari erantsi beharra daukate gainetik, ibilgailuaren zirkulazioko baimena, haren erabiltzailearen gidabaimena eta bai IAT delakoa ontzat emandako dokumentu egiaztagarria ere.

*Artikulua 7. Salmenta katigu dauden postuetan eta mugigarriak direnetan.*

1. Bidesalmentaren mota honen barruan hurrengo moduko postuak sartuta daude:

a) Mizkerien eta fruitu lehorren salmentako postuak.

específicas y comunes a todas las personas titulares de autorizaciones municipales. Son de carácter extraordinario y su situación, periodicidad o número de puestos será previamente determinado mediante resolución de la Alcaldía.

En ellos se autoriza la venta de productos artesanales confeccionados directamente por la persona que ejerce la venta o por otra persona, tales como artículos de cuero, cerámica, pintura, escultura, objetos decorativos etc., prohibiéndose expresamente la venta de productos alimenticios.

*Artículo 6. Venta realizada en camiones-tienda.*

1. Es aquella en la que la persona que realiza la venta utiliza, a tal fin, un vehículo de tipo furgoneta o camión, acondicionado de acuerdo a la normativa aplicable al transporte y venta de productos autorizados.

La actividad será periódica u ocasional, y en el lugar o lugares que consten en la autorización municipal.

2. En el caso de venta de productos alimenticios será preciso hacer constar, asimismo, descripción del acondicionamiento y dotaciones del vehículo respecto a las Reglamentaciones Técnico-Sanitarias de aplicación.

3. Además de los requisitos exigidos para el otorgamiento de la autorización en el art. 14 las personas que lo soliciten deberán acompañar a la instancia el permiso de circulación del vehículo, carnet de conducir de la persona que lo utilice y documento acreditativo de haber superado la I.T.V. correspondiente.

*Artículo 7. Venta realizada en puestos de enclave fijo y de carácter desmontable.*

1. Se englosan dentro de este tipo de venta ambulante las siguientes modalidades:

a) Puestos de golosinas y frutos secos.

b) Pitxigintzako eta eskulangintzako salmenta-postuak.

c) Izaera ekonomikoa edo soziala daukaten gauzen eta argitarapenen salmentako postuak.

d) Zirkuetan, teatroetan eta beste ikuskarietan ezarritako salmenta-postuak.

e) Loreen eta landareen salmentako postuak honelako izaera daukala.

2. Bidesalmentaren mota honetatik kanpo geldituko dira katigu dauden postuetan egindako salmentak, hots:

a) Txitxiri-bitxirien eta frijiduren salmentako postuak.

b) Izozkien eta freskagarrien salmentako postuak.

c) Gaztaina erreen salmentako postuak.

d) Salmentako kioskoak edo kaleko saltokiak: egunkari, agerkari, aldizkari, argitarapen eta litxarreria.

3. Salmenta-moduren bat aurrekoetatik berariaz bereizia agertzen ez bada, bidesalmenta bezalakotzat joko da bera.

4. Egunkariak, agerkariak, albistariak, argitarapen aldizkariak eta ONCEko loteria saltzen dituzten postuak erregelatzekotan, beren gaineko arau berarizkoek agindutakoari eutsi beharrean daude.

*Artikulua 8.*

Bidesalmenta inondik ere iritziko ez zaienak izango dira hurrengoak:

1. Etxez etxeko salmenta.

2. Urrutiko salmenta.

b) Puestos de bisutería y artesanía.

c) Puestos destinados a la venta de objetos y publicaciones de carácter económico o social.

d) Las realizadas con ocasión de instalación de circos, teatros y otros espectáculos.

e) Puestos de flores y plantas que tengan este carácter.

2. No se incluirán en este apartado los puestos de carácter no desmontables destinados a la venta de los siguientes productos:

a) Puestos de churrerías y freidurías.

b) Puestos de helados y productos refrescantes.

c) Puestos de castañas asadas.

d) Kioscos de venta de periódicos, revistas y publicaciones periódicas y golosinas.

3. Aquellos supuestos que no aparezcan expresamente excluídos tendrán la consideración de venta ambulante.

4. Los puestos de periódicos, revistas, ONCE y publicaciones periódicas se regularán por lo establecido en su normativa específica.

*Artículo 8.*

No tendrán en ningún caso la consideración de venta ambulante:

1. La venta a domicilio.

2. La venta a distancia.

3. Noizean behingo salmenta.

4. Salmenta automatikoa horretarako paratutako makinetan.

*Artikulua 9.*

Debekatua dago udalbarruti guztian bidesalmentan egitea udal ordenantza honetan adierazitakoez besteko kasuetan.

*Artikulua 10. Salbuetsitako hiri-barrutia.*

1. Getxoko udalerriko mugape guztia deklaratua da salbuetsitako hiri-barrutitzat eta bertan ezin egingo da bidesalmentan, Merkataritzako Jardueraren legeak, 7/1994, maiatzaren 27, Eusko Legebiltzarreak onetsitakoak agindutakoari atxikita.

2. Getxoko Udalak Bizkaiko Merkataritzako Ganbara Ofiziala entzun ondoan onetsi izan du salbuetsitako hiri-barrutia, udal mugapean dagoen merkataritzako ekipamenduari begira eta hiritar bizilagunek kontsumoan daukaten ahalmenaren arabera.

3. Debeku honetatik kanpoan daude harako Eusko Jaurlaritzako sailak, eskumena artean daukanak, erregelamendua legez erabakita ezartzen dituen merkatuak, feriak eta azokak, jaiak eta ospakizunak, herrikoak edo tradiziokoak, direla eta eginda.

Salbuespeneko erabakia hartuko da Udala eta udalerriko merkatarien eta kontsumitzaileen elkarteak, herritarrik gehien errepresentatzen dutenak entzun ondoan.

**Titulua I. Bidesalmentan baimendutako postuak eta produktuak**

*Artikulua 11. Salgaiak*

1. Bidesalmentarako baimendutako salgaietan daude ehunak eta oihalak, baxerak eta portzelanazkoak, loreak, pitxiak, eskulangintzakoak, gaiak, argitarapenak, direla politikoak edo

3. La venta ocasional.

4. La venta automática realizada mediante máquinas preparadas al efecto.

*Artículo 9.*

Queda prohibida en todo el término municipal la venta ambulante fuera de los supuestos previstos en la presente Ordenanza.

*Artículo 10. Perímetro Urbano Exceptuado.*

1. Todo el Municipio de Getxo se ha declarado Perímetro Urbano Exceptuado en el cual la venta ambulante no podrá practicarse, con sujeción a lo que se dispone al respecto en la Ley 7/1994 de 27 de mayo de la Actividad Comercial aprobada por el Parlamento Vasco.

2. El Perímetro Urbano Exceptuado se ha aprobado por este Ayuntamiento, oída la Cámara Oficial de Comercio de Bizkaia, en razón al nivel de equipamiento comercial existente en la zona y su adecuación a la capacidad de consumo de su población.

3. Quedarán excluidos de esta prohibición, aquellos mercados que reglamentariamente determine el Departamento del Gobierno Vasco que tenga atribuida la competencia, y que se celebren con motivo de ferias, fiestas o acontecimientos populares o tradicionales.

Dicho acuerdo de exclusión se adoptará previa audiencia del Ayuntamiento y de las asociaciones de comerciantes y consumidores más representativos del municipio.

**Título I. De los puestos y productos autorizados para la venta ambulante.**

*Artículo 11. De los productos de venta.*

1. Podrá autorizarse la venta ambulante de productos textiles, loza y porcelana, flores, bisutería, artesanía, objetos y publicaciones de carácter político, económico y social y demás que

ekonomikoak edo sozialak, eta azkenik, kasu eta kondizio jakin batzuetan baimendutakoak.

2. Debekatua dago jatekoak kalean saltzea; baimenduak daude, halere:

a) Barazkiak eta ortuariak herri-azoketan.

b) Izozkiak furgonetan salduta.

c) Harako arautegi indarrean dagoenak debekatzen ez dituenak, ez mugatzen bidesalmentan salerostea, azokako esparruan eta herriko jaiak eta ospakizunak direla kausa ez bada.

*Artikulua 12. Salmentako postuak*

1. Udal organo eskudunak baimeneko agiri bakoitzean adierazita xedatuko du salmentako postuak zenbat izango diren, zertzuk eukiko dituen salgai postu bakoitzak, postuen handitasunen luze-zabalak eta gainetiko zertzeladak.

2. Baimenak beren izenez hartutakoek haietan seinalatutako kondizioei eutsi eragin behar diete beren salmenta-postuei, buruan daukatela dena den, instalazio hoiek deseraiki daitezkeenak izango direla eta erabiltzen errazak, eta konplitu behar dituztela segurtasun, osasungarri eta apaindura publikoekiko neurriak.

*Artikulua 13. Jatekoen salmentako postuak eta haien kondizioak*

Jatekoen bidesalmentak bere berezitasunak dauzkanez gero, honelako salmentan egiten den postuek, salmenta-postu guztiek gorde behar dituzten kondizio orokorrak, udal ordenantza honetan ordenatutakoak, eta bai kondizio higienikoak eta sanitarioak eta beste edozelakoak euki behar dituzte aldean, komertzializatutako janarien eta instalazioen gaineko berariazko erregelamenduek agindu bezala.

**Titulua II: Bidesalmentan Egitea**

se autoricen en circunstancias y condiciones precisas.

2. No se autorizará la venta ambulante de productos alimenticios, excepto:

a) Hortícolas en mercados tradicionales.

b) Helados en furgoneta.

c) Aquellos que la normativa vigente no prohíba o limita su comercialización en régimen ambulante, únicamente dentro del recinto ferial y con ocasión de fiestas y acontecimientos populares.

*Artículo 12. De los puestos de Venta.*

1. El número de puestos de venta con indicación de los artículos de venta en cada uno de ellos, las medidas de mayor o menor amplitud de los puestos y demás condiciones de los mismos serán determinados por el órgano competente en cada autorización.

2. Los titulares de las autorizaciones deberán sujetar sus instalaciones a los condicionamientos señalados teniendo en cuenta que en todo caso habrá de tratarse de instalaciones desmontables de fácil transporte y que reúnan condiciones de seguridad, salubridad y ornato público.

*Artículo 13. De las condiciones de los puestos de venta ambulante de productos alimenticios.*

Dado el carácter singular de la venta ambulante de productos alimenticios, además de las condiciones generales que en la presente Ordenanza se establecen para todos los puestos de venta, aquellos en los que se expendan este tipo de productos deberán reunir las condiciones higiénico sanitarias y de otra índole que se establezcan en las reglamentaciones específicas de los productos comercializados e instalaciones.

**Título II: Del Ejercicio de la Venta Ambulante**.

Kapitulua I Bidesalmentan egin ahal izateko betebeharrak

*Artikulua 14. Getxoko udalbarrutian bidesalmentan egiteko betebeharrak*

1. Alta emanda egon Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alderako, dagozkion ataletan behintzat, eta kito euki haren pagua.

2. Alta emanda egon Gizarte-Segurantzan doakion errejimenaren barruan eta kito euki kuotaren pagua. Legezko nortasuna badu interesatuak, elkarteren bat dela, alegia, Gizarte-Segurantzan enpresatan inskribatua egon, langileak kidetuak euki eta kuotak kitatuak.

3. Higieneko eta osasuneko kondizioak edo beste edozelakoak konplitu, komertzializatutako produktuei eta instalazioei berariaz doazkien erregelamenduek manatu bezala.

4. Udal baimena aldean euki.

5. Aginduzko prezio publikoak ordainduta kitatu.

6. Arrotzak izatekotan, egiaztagiriak euki egoitzako eta laneko baimenak eskuratua, edo beste edozein dokumentu egoitza eta lana euki ahal izateko.

Kapitulua II: Udal baimenak

*Artikulua 15.*

Baimena interesatuak aurretik eskatuta eman edo erauki egingo da eta Udaleko Alkatetzara bidalitako eskaerako idazkian agertuko dira:

a) Eskatzailearen izen-deiturak.

b) E.N.A.ko zenbakia edo I.F.Z. eta I.F.K., elkartea bada.

c) Bizilekua edo elkartearen egoitza.

Capítulo I: Requisitos para el ejercicio de la venta ambulante.

*Artículo 14. Para el ejercicio de la venta ambulante en el Municipio de Getxo se requiere:*

1. Estar dado de alta en los epígrafes correspondientes del impuesto sobre Actividades Económicas y encontrarse al corriente de su pago.

2. Estar dado de alta en el Régimen de la Seguridad Social que corresponda y al corriente del pago de la cuota. En el caso de personas jurídicas, estar inscrito como empresa en la Seguridad Social, tener afiliados a sus trabajadores y estar al corriente en el pago de las cuotas.

3. Cumplir los requisitos higiénico-sanitarios o de otra índole que establezcan las reglamentaciones específicas relativas a los productos comercializados e instalaciones.

4. Disponer de autorización municipal.

5. Satisfacer el pago de los precios públicos correspondientes.

6. En caso de extranjeros, documentación acreditativa de haber obtenido los correspondientes permisos de Residencia y Trabajo o cualquier otra documentación que le habilite para residir y trabajar.

Capítulo II: Autorizaciones Municipales.

*Artículo 15.*

Las autorizaciones se otorgarán previa solicitud del interesado dirigida a la Alcaldía de la Corporación, en la que se hará constar:

a) Nombre y apellidos del peticionario.

b) Número del D.N.I. o N.I.E y C.I.F. en el caso de las personas jurídicas.

c) Domicilio o razón social.

d) Pertsona juridikoa bada, enplegatuaren edo kidearen izen-deiturak, bizilekua eta ENA ere aipatuta jarraraziko dira gainetik, elkartearen kontura baimenaz usatuko du eta.

e) Salmenta-postuaren eta salgaien deskripzioa.

f) Salmenta-postua paratzeko den lekua, eguna eta orduak.

g) Postuak behar besteko luze-zabala.

*Artikulua 16.*

Aurreko artikuluan aipatutako eskaerarekin batean, jatorrizko bana eta kopia bana ekarriko ditu eskatzaileak ondoko dokumentuetatik:

a) ENA edo IFZ, edo behar izanda, IFK; atzerritarren aldetik, egoitzako eta laneko baimenak edo beste zeinahi dokumentu bertan bizitzeko eta lan egiteko gai egiten dituenik.

b) Altako agiria eta azkeneko errezibua, Gizarte-Segurantzan sartua egon eta kotizazioa pagatua.

c) Altako agiria eta azkeneko sarreraren errezibua, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren aldetik.

d) Elkarteren bat izatekotan, enpresaren konstituzioko eskritura, Merkataritzako Errejistroan inskripzioa eginda, eta ordekoaren boterea edo mandatua, Udal Idazkariak askietsia.

e) Jatekoak salgai izatekotan, jakiak maneiatzeko karneta.

f) Jarduera horretan enplegatutako pertsonen dokumentuak, inor enplegaturik baleuka, elkarren arteko lan-harremana erakusteko.

g) Pertsonen nortasunen egiaztagiriak,

d) En el caso de personas jurídicas, además, se hará constar, referencia al nombre, domicilio y DNI del empleado o socio de la entidad que vaya a hacer uso de la autorización por cuenta de ésta.

e) Descripción de las instalaciones y de los artículos de venta.

f) Lugar, fecha y horario de ubicación.

g) Número de metros que precisa ocupar.

*Artículo 16.*

Junto a la solicitud a la que se refiere el artículo anterior, el peticionario deberá aportar original y copia de los siguientes documentos:

a) D.N.I. o N.I.E. .C.I.F., en su caso y permiso de trabajo por cuenta propia y residencia para extranjeros u otra documentación que habilite para residir y trabajar.

b) Alta y último recibo de ingreso de las cotizaciones a la Seguridad Social.

c) Alta y último recibo del ingreso del Impuesto sobre Actividades Económicas.

d) En el caso de personas jurídicas, Escritura de constitución de la empresa inscrita, en su caso, en el Registro Mercantil y poder bastanteado por el Secretario de la Corporación.

e) En el caso de productos alimenticios, el carnet de manipulador de alimentos.

f) Si tiene personas empleadas en esa actividad deberá aportar la documentación de las mismas que demuestre la relación laboral.

g) Documentación acreditativa de la

halakoak jarduera horretan egitera baimenduta baleude.

identidad de las personas que pudieran estar autorizadas para ejercer la actividad.

Kapitulua III: Prozedura

Capítulo III: Procedimiento.

*Artikulua 17.*

Eskaera bidezko dokumentuekin batean jasota, dokumentu hoiek eta, baldin balira, manuzko txostenak aztertutakoan, udal organo agintedunak erabaki egingo du baimena eman ala eman ez.

*Artículo 17.*

Recibida la solicitud y documentos pertinentes, el órgano municipal competente, examinada la documentación aportada y, en su caso, los informes preceptivos, resolverá la petición autorizando o denegando.

*Artikulua 18.*

Dena den, janarien bidesalmentako baimena eraukitzea nahi bada, agintaritza eskudunak baiezko txostena egotzi beharra egongo da.

*Artículo 18.*

En todo caso, la autorización para la venta ambulante de productos alimenticios requerirá el informe favorable de la autoridad competente.

*Artikulua 19.*

Udal baimenak berariaz eukiko dituenak dira:

a) Jarduerarен titularraren identifikazioa eta bai horretan beraren izenean egin ahal izateko baimendutako pertsona batena edo batzuenak ere.

b) Kokaerako lekua eta eguna, jardueran egiten has ahal dadin.

c) Baimendutako salgaiak.

d) Okupatzeko den luze-zabala.

e) Salmenta-postuaren bereizkundeak.

*Artículo 19.*

La autorización municipal contendrá de forma expresa:

a) Identificación del titular y de la persona o personas autorizadas para ejercer la actividad a su nombre.

b) Lugar y fecha de ubicación en los que puede ejercer la actividad.

c) Productos autorizados.

d) Superficie a ocupar.

e) Características de la instalación.

*Artikulua 20.*

Saltzaile guztiek aldean ekarri behar dute zeinek bere udal baimena, eskatzekotan udal agintaritzaren peskizan ipini ahal izateko moduan; bertan agirian egongo dira:

a) Titularraren identifikazioa eta baimendutakoenak, bestelakoak izatekotan.

b) Salmentako baimenaren baliozko epea.

*Artículo 20.*

Todos los vendedores deberán portar la licencia municipal que estará a disposición de la autoridad municipal que lo requiera, en la que constará:

a) Identificación del titular y de las personas autorizadas, en el caso de que las hubiera.

b) Período de validez del permiso de

venta.

c) Baimendutako salgaiak.

d) Baimendutako lekua, egunak eta orduak, jardueran egin ahal izateko.

*Artikulua 21.*

Baimenak eskatu ahalakoak izango dira, diskrezionalak alegia. Beraz, Udalak komenigarri baderitza, kontra erabakita ezeztatu ahal izango ditu eman eragin dizkioten zioak galdu ezkero, hainbat udal ordenantza honek agindutakoak, nola harira datozen arauak bete gabez. Edozelan ere, ez da egongo batere kalteordainik ez kitantzarik zor izaterik.

Beste aldetik, titular bati baimen bakar bat baino ez zaio emango inondik ere, bidesalmentan epe batean egin nahi badu.

Kapitulua IV Udal baimenaren berezitasunak

*Artikulua 22*

1. Udal baimena eskualdatu ezina da, baimendutakoek usatzea beren esku badaukate ere, halere.

2. Berezko pertsonen kontuan, aurrena esandakoaren aldera baimenduak izan daitezke titularraren ezkontidea, seme-alabak eta ogipekoak ere, Gizarte-Segurantzan alta emanda egon beharrean.

3. Legezko pertsona izanenean aldiz, artikulu honetan aurrena esandakoaren aldera baimenduak egon daitezke elkarteko kideak eta enplegatuak, Gizarte-Segurantzan alda emanda egon beharrean.

Kapitulua V Udal baimenaren iraungipena

*Artikulua 23*

Bidesalmentako udal baimenei iraungi eragingo

c) Productos autorizados.

d) Lugar autorizado para el ejercicio de las actividad, fechas y horarios.

*Artículo 21.*

Las autorizaciones tendrán carácter discrecional y por consiguiente podrán ser revocadas por el Ayuntamiento cuando se considere conveniente en atención a la desaparición de las circunstancias que las motivaron, por incumplimiento de esta Ordenanza, así como de la normativa aplicable, sin que dé origen a indemnización o compensación alguna.

En ningún caso podrá concederse a un mismo titular dentro del mismo período, más de una autorización para el ejercicio de la venta ambulante.

Capítulo IV Características de la autorización municipal.

*Artículo 22.*

1. La autorización municipal será intransferible, pudiendo, no obstante hacer uso de ella, las personas autorizadas.

2. En el caso de personas naturales podrán ser autorizadas, a los efectos del párrafo anterior, el cónyuge, hijos y empleados del titular dados de alta en la Seguridad Social.

3. En el caso de personas jurídicas, podrán ser autorizadas, a los efectos del párrafo primero de este artículo, los socios y empleados de las empresas dados de alta en la Seguridad Social.

Capítulo V Extinción de la autorización.

*Artículo 23.*

Las autorizaciones de venta se extinguirán por:

dietenak izan daitezke:

a) Baimena emandako epea amaituta.

b) Titularraren ukoa.

c) Titularraren heriotza.

d) Salmentako postua jabez aldarazita.

e) Udal baimena galdu eragindako zehapena.

f) Beharreko prezio publikoak ez ordaindua.

g) Udal baimena eskuratzeko galdatutako betebeharren bat edo guztiak galduta.

h) 21. artikuluak ezarri bezala ezeztatuta.

i) Udalbarrutian bidesalmenta mota guztian egitea debekatua.

d), e), f), g), h) eta i) zioak direla eta iraungita, lehenago erabaki beharko zuen organo agintedunak interesatuari aurretik entzundakoan, 15 eguneko epe bat dagoela horretarako.

a) Término de plazo para el que se otorgó.

b) Renuncia del titular.

c) Fallecimiento del titular.

d) Transmisión del puesto.

e) Sanción que conlleve la pérdida de la autorización.

f) Impago de los precios públicos correspondientes.

g) Pérdida de todos o alguno de los requisitos exigidos para obtener la autorización.

h) Por revocación establecida en el artículo 21.

i) Supresión del ejercicio de la venta ambulante en general en el Municipio.

La extinción por los motivos d), e), f), g) h) e i) requerirán la adopción de un acuerdo por el órgano competente previa audiencia del interesado por un plazo máximo de 15 días.

## Titulua III Bidesalmentan egiten duten lagunen eskubideak eta eginbideak

*Artikulua 24 Eskubideak*

Udal baimendunari bidesalmentan Getxoko udalbarrutian egin ahal dezan, hurrengo eskubideak zor zaizkio:

a) Baimenduak dauzkan salmenta-postuak bereganatzea.

b) Jendaurrean bakean egitea baimenaren orduetan eta baldintzekin bat datorrela, Udalak baimendutako bidesalmentan.

## Titulo III. De los derechos y obligaciones de las personas que ejerzan la venta ambulante.

*Artículo 24. Derechos.*

Las personas titulares de autorización municipal para el ejercicio de la venta ambulante en el municipio de Getxo gozarán de los siguientes derechos:

a) Ocupar los puestos de venta para los que estén autorizados.

b) Ejercer pública y pacíficamente, en el horario y condiciones establecidas en la autorización, la actividad de venta autorizada por el Ayuntamiento.

